



4 GURE ESKU DAGO Erabakitze eskubidearen aldeko aldarri jendetsua

Ehunka herritarrek egin zuten bat Gure Esku Dago taldearen deialdiarekin ostiral arratsaldean, Loidibarren frontoian. Bertan bi puntuko adierazpen bat onartu zuten: batetik, Euskal Herriak eskubidea duela bere etorkizuna erabakitze, eta, bestetik, euskal herritarrei dagokiela hori erabakitzea. 2016ko zenbait ekitaldiren berri ere eman zuten taldeak, eta aurreratu galdeketa egin gura duela herrian, 2017an.

5 KULTURA Doinu zuberotarrak IV. Musika Asteari amaiera emateko

Amaren Alabak talde zuberotarrak 'Plazandere' ikuskizuna oholzaratu zuen atzo Manuel Lekuona kultur etxean. Hamazazpi abestik osatzen dute taldearen bigarren lana; denak dira 'A capella' erara kantatutakoak. Emanaldi horrek berak itxi du IV. Musika Astea. Aipatutakoak eta beste hiruk osatu dute aurtengo edizioaren egitaraua: larunbat arratsaldean 'La tabernera del puerto' zarzuela oholzaratu zuen Sasibil taldeak; Serafin Zubiri artista nafarra aritu zen ostiralean; eta 'Eunate XXI' kontzertuak ireki zuten kartela, ostegunean.



Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 363 txirrindularik hartu dute parte aurtengo edizioan. Okendo plazan bildu ziren denak, probari ekin aurretik.

Ezin zen gehiago eskatu

Giro ederrean burutu zuten atzo Lasarte-Oriako VI. BTT travesia

Gozatu ederra hartu zuten atzo Lasarte-Oriako VI. BTT proban parte hartu zuten 363 txirrindulariek. Okendo plazatik abiatu ziren, 9:30ean. Andatza eta Buruntza mendian barrena ibili ziren gero: 28 kilometroko ibilbide motza osatu zuten batzuek, eta 39ko luzea besteek. Helmugaratu ostean, Okendon berri zuzten indarrak guztiak.

Kirol ekitaldi bat behar bezala burutu ahal izateko baldintza guztiak bete ditu Lasarte-Oriako VI. BTT travesiak. Probaren antolatzaile Saiatuz txirrindulari elkarrearen lan eskergari atzoko eguraldi zoragarria gehituz gero, emaitzak ezin izan bestelakoa: erabat arrakastatsua izan zen ekitaldia.

Denera 363 txirrindularik hartu dute parte aurtengo edizioan. Okendo plazatik abiatu ziren denak, 9:30ean. Neutralizatuak izan ziren aurreneko

sei kilometroak, Txokoalderaino. Ondoren, Andatza eta Buruntza mendietan barrena ibili ziren parte hartzaileak. Batzuek 28 kilometroko ibilbide laburra burutu zuten, eta 39ko luzea besteek.

Okendo irteera eta helmuga
Abiatu eta bi ordu pasatxora hasi ziren iristen txirrindulariak. Erabil genitzakeen kronikatxo honen lerroak irabazleei buruzko datuak emateko, baina ez litzaizkiguke kabituko. Zergatik? Travesian parte



Zaleen animo eta txalok indar estra eman zien txirrindulariei, azken metroetan.

hartu zuten 363ak izan zirela-ko garaile atzokoan. Eta antolatzaileak. Eta bolondresak. Denek jarri zuten euren hondar aletxo kirol ekitaldia ongi baino hobeto atera zedin.

Hondarrez bainoago, lokatzez beteta iritsi ziren parte hartzaileak Okendora. Euri

dezente egin du egunotan, eta nabaritu zen hori ibilbidea osatzerakoan.

Behin plazara iritsita, indarrak berri zuzten: txistorra eta tortila pintxoak, freskagariak, ura...ez zuten ezer bota faltan. Hainbat sari ere banatu zituzten antolatzaileek.

Begirale bezala lan egingo zenuke udaran?



Begirale lan-poltsa osatzen ari gara. 18 urte baina gehiago badituzu eta euskara maila altua, bidali zure kurrikuluma apirilaren 25a baina lehen aisia@ttakun.eus helbidera edota Ttakuneko bulegora.

*Begirale titulua eta esperientzia kontutan hartuko dira.



zerbitzu mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

Euskal Inauteriak eraldatzeko bilera

Euskal Inauteriak konpartsa antolatzen duten elkarte eta eragileak lanean hasi dagoeneko hurrengo urtea prestatzen. Aurtengo Euskal Inauterietako desfilean aurreratu zen moduan, hurrengo urteko ekimenak moldaketak izango ditu.

Egitasmo berriak lantzeko laguntza behar du taldeak eta horregatik herritar guztiei irekia den bilera berezia egingo du apirilaren 20an, 18:30etik aurrera, Villa Mirentxun.

Eraldaketa

Konpartsako kideek jakitera eman dutenez, bileran Euskal Inauterien konpartsaren plan-teamendu berria eta bere hel-

buruak azaltzeaz gain, aldatetaren zergatia eta hemendik aurrerako ildoak azalduko dira. "Ekintza eraldatua aurrera eraman nahi dugu, eta horretarako lanketa egin beharra dago", aipatu dute.

Gainera, Euskal Inauteriak oinarri dituen baina Lasarte-Oriako identitatea mantendu eta esanahi propioa duen egitasmoa antolatu nahi dute.

"Ekintza herritarrei irekia izango da eta herritarrentzat", atxiki dute.

Hori dela eta, lanketan parte hartu nahi duten herritarrei bilerara hurbildu eta bide-lagun izatera gonbidatzen ditu taldeak.



Eragile ugari aniztasunaren alde



MultikulturFest jaialdia antolatu duten eragile batzuen arteko talde argazkia.

MultikulturFest jaialdia aurkeztu zuten ostiralean Udaltaldean. Orain arte Sasoeta-Zumaburu ikastetxean ospatzen zena Lasarte-Oria osora zabalduko da. Herriko eragile askok hartu du parte antolakuntzan, eta espero dute herritarrek prestatutako egitarauarekin gozatzea.

Aniztasuna sustatzea eta ospatzea du helburu MultikulturFest jaialdiak. Hala adierazi zuen alkate Jesus Maria Zaballosek joan den ostiralean.

Pozik daude Udaleko ordezkariak jasotako babesagatik; herriko elkarte, eragile

eta norbanako askok hartu du parte egitarauaren osieran.

Mohammed Ezzaky-k eta Natalia Beltranek eman zuten aurtengo egitarauko ekintzen berri, ostiraleko ekitaldian.

MultikulturFest jaialdiaren atzean "lan handia" dagoela azpimarratu zuten, eta Lasar-


te-Oriako herritarrek erantzutea espero dute.

Gizarte zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedoren ustez, "gehitzeko eta integrazteko" filosofiarekin antolatutako egitaraua da.

Anitzen sarea

Teknikari Izaskun Oronozek aipatu zuen 2016ko Anitzen sarea ekitaldi honekin hasiko dela. Maiatzean hizkuntzen inguruko lanketa egingo da eta irailean aurreiritzien aurkako kanpaina.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deialdia



Izapideak euskaraz egiteak hizkuntza indartzen laguntzen du.

Errenta aitortpena euskaraz egiteak dituen onurak nabarmendu dituzte Buruntzaldeko euskara batzordeek. Egiteak berak gizarteari ekartzen dizkion etekinez gain, hizkuntza indartzen duela azpimarratu dute.

Hiru modu

Errenta aitortpena egiteko dauden hiru moduetan euskarazko zerbitzua bermatuta dago Buruntzaldean.

Mekanizatua egin ahal izateko hitzordua apirilaren 15etik ekainaren 6a arte hartu ahal izango da. Izapideak egiteko garaian, Ogasunarekin harremanak euskaraz eduki nahi direla azaldu daiteke. Halaber, Ogasun zerbitzuekin aurrez aurre

nahiz telefonoz euskal hizkuntza erabiltzeko aukera dagoela nabarmendu dute.

Autolikidazio proposamena onartu nahi izanez gero, euskaraz egin nahi dela esan daiteke. Hala, aurrerantzean Ogasunak agiriak hizkuntza horretan bidaliko ditu. Apirilaren 11tik ekainaren 25a bitartean egin beharko da.

Internetez, aldiz, errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi beharko da. Hobetsitako hizkuntzen atalean aukera liteke nahi dena. Apirilaren 18tik ekainaren 25a bitarteko epea dago modu honetan egiteko.

Errenta aitortpena aholkularitza zerbitzu baten laguntzaz egiten duenak ere eska liezaioke euskaraz egiteko.

Sagardotegiko menua zozketan


2015ean egin zuten bezala, sagardotegiko menua zozketatuko dute. Bertan sartu ahal izateko Facebooken euskara batzordeek jarri duten iragarria partekatu beharko dute.

Azaldu dutenez, urteak darमतzate errenta aitortpena euskaraz egitearen aldeko kanpainak egiten. Emaitzak orain arte onak izan dira. Izan ere, "poliki-poliki" Buruntzaldean gero eta jende gehiagok egiten ditu euskarazko izapideak Ogasuneari.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.buruntzaldea.eus webgunean eta eskualdeko euskara zerbitzuetan eskura daiteke.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

PRESOAK



Lasarte-Oriako preso ohiak, udaletxe atarian egindako talde argazkian.

Preso ohiak 'Abian da Bidea' ekimenarekin bat

Igande honetan Bilbon egingo den manifestaziora atxikitu dira

Lasarte-Oriako preso ohiak agerpen bateratua egin zuten ostiral arratsaldean. 'Abian da bidea' ekimena babesten dutela adierazi eta igande honetan Bilboko Kasilatik aterako den manifestazioarekin bat egingo dutela azaldu dute. Salbuespen legediarekin eta sakabanaketarekin amaitzeko eskatuko dute.

TXINTXARRI

Abian da bidea izeneko ekimenak "Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera" dokumentua kaleratu du.

Lasarte-Oriako preso ohiak bat egin dute testuarekin eta igandeko manifestazioan izango dira.

Ezker abertzaleak egindako hautua bere egin dute, "soilik molde demokratikoak" jarraituz.

Hala, ostiralean Frantziako eta Espainiako estatuetatik "jarrera bortitza" topatu dute-

la nabarmendu zuten, preso eta iheslarien aurkako "bortizkeria, jazarpena edota zigor erantsiak" ezarriz.

EPPK-k 2013an ateratako agirian bildutako urratsak defendatu dituzte. Hala nola, espetxe aldaketa eskatzea, preso gaixoen kaleratzea eta baldintzapeko askatasuna lortzeko eskariak eta zigor murrizketak bideratzeko helegiteak.

Dokumentuaren arabera, "preso eta iheslarien etxeratze bidea abian da". Horretarako, "jendartearen engaiamendua indarberritzea" funtsezkotzat dute.

Bide horretan, ezinbestekoa ikusten dute "herri bezala" erabakitze eskubidea bermatzea.

Apirilaren 17an Bilboko Kasilatik aterako den manifestazioaren eskaera nagusiak bi dira: batetik, "salbuespeneko legedia astintzea", eta, bestetik, "sakabanaketarekin bukatzea".

Hala ere, nabarmendu dute alde batetik baino gehiagotik konpromisoak hartu beharko direla.

Hori dela eta, "sakabanaketaren aurka eta presoan etxeratzearen alde" lanean ari direnak eta alde daudenak Bilbora gonbidatu dituzte.

Lasarte-Oriatik aterako diren autobusetan izena eman nahi duenak ohiko tabernetan egin ahal izango du igandea bitartean.

ATERPEA

Udaberri Festako marrazki erakusketan parte hartzeko baldintzak

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte den Aterpeak, iazko Udaberri Festan antolatu zen marrazki erakusketaren arrakasta ikusita, egitasmoa berriro antolatzea erabaki du.

Herriko haur guztiak parte hartu ahaliko dute bertan, baina herriko ikastetxeetan landuko da bereziki. Hori dela eta, herri-kanpo ikasten duten haurrek marrazki erakusketan parte hartu ahal izateko jarraibideak jakitera eman ditu elkar- teak.

Aurtengo Udaberri Festako marrazki erakusketako gaia Lasarte-Oriaren 30. urteurrena izango da. Hori dela eta, herri-ko txoko kuttunena marraztu beharko dute.

3 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako erakusketa da. Zumaburu liburudendan edota Kattagorri jolasdendan eskuratu ahal izango dute marrazkia egiteko kartoia mehea.

Apirilaren 30a bitartean kartoia jaso zuten leku berean aurkeztu beharko dira marrazkiak. Aterpeak, bere aldetik, maiatzaren 9tik 13ra jarriko ditu ikusgai bere saltokietan.

Egun horietan, haurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitoxa jasoko dute.

HITZALDIA

IKTen inguruko hitzaldia Zubietan

Oso gaztetatik, haurrek IK Tetara, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietara sarbidea dute. Hauen erabilerari buruz hausnartuko dute hilaren 20an, Zubietako guraso elkar- teak antolatutako hitzaldian.

Baikarako, Gipuzkoako Ikasleen Guraso Federazioko Esther Martinezek hitz egingo du Zubietako Kaxkape elkar- tean hilaren 20an, 18:00etan. Seme-alabek IK Tak era "ego- kian" erabiltzeari buruz hitz egingo dute.

Kezka duten gurasoei zuzendutako saioa da, baina interesa duen edonor gertura daitekeela nabarmendu dute antolatzaileek.

UDALA

Bake-epaile postua

Bakezko Epaile Titularraren eta Ordezko Epailearen karguak betetzen dituzten pertsonen agintaldia amaitu da. Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak hamabost egun balioduneko epea ireki du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarpena argitaratu zen egunaren hurrengotik kontatzen hasita, hau da, G.A.O., 64 zkia., 2016eko apirilaren 8koa, interesaturik dauden hautagaiek, eta eskaturiko legezko baldintzak betetzen dituzte- nek, eskaera aurkeztu dezaten.

Hautagaiek Udaleko Pertsonal sailean aukera dute espedienteaz aztertu eta halaber behar duten informazioa eskuratu eta eskabidearen eredu jasotzeko. Eredu hori Udalaren web gunean, www.lasarte-oria.eus ere eskuratu ahaliko da.



Ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifa aldaketa jorratuko da.

Alderdi ezberdinek auz- keztutako mozio eta adieraz- pen proposamenak ere izango dira mahai gainean.

Udal talde sozialistak etxe- bizitzak legez okupatzeko eskubide subjektiboak eta honi dagokion laguntza ekonomi- koa arautzea proposatuko du adierazpen instituzionalaren bidez.

EAJ eta PSE-EEK haur- par- keen irisgarritasunari buruzko proposamena aurkeztuko dute.

EHBilduk Ospitaleetarako autobusaren murrizketa eta auzo-konpostajea eramango ditu batzarrera.

Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldeak, berriz, herri- tarrenganako kontu irekien araudi proposamena egin eta kudeaketa etiko eta gardena egitea eskatuko dio Udalari.

Errefuxiatuen egoera aztergai biharko udalbatzarrean

Lasarte-Oriako ordez- kari politikoez bihar egingo duten Udalbatzarrean, bes- teak beste, errefuxiatuen egoera aztertuko dute.

EAJk mozioa aurkeztuko du Europar Batasunak orain arte hartutako erabakiak salatzeko eta erantzun gizatiarra- goak hartzeko eskatzeko asmotan.

Lau eskaera

Astearteko udalbatzarrean aurkeztuko duten mozioak lau puntu nagusi bildu ditu.

Lehenik, martxoaren 18an Europar Batasunak Turkiarekin itxitako akordioaren "adore eta konpromiso eza" salatuko dute. Europaren

identitatea "arrisku larrian" jartzen duela nabarmenduko dute.

Elkartasun konpromiso bat hartzeko eskatuko diete Euro- pari eta Batasuneko kide dien herrialdeei. Larrialdi egoeran dauden pertsonen laguntza emateko "konpromiso institu- zionala, politikoa eta soziala" hartzeko galdegingo dute.

Halaber, nazioarteko legeak betetzeko ardura dute- la gogoratuko dute, 1951ko Genevako konbentzioa, Giza Eskubideen Adierazpena eta Europar Batasunaren Oina- rrizko Eskubideen Karta aipa- tuz.

"Irtenbide humanitario azkarraren" alde agertuko

dira, "euskal erakundeek dagokien ardura hartzeko prest daudela" berretsiz.

Azkenik, EBri eta estatu kideei "pasabide humanita- rioak" sortzeko eskatuko diete. Hala, iheslariari ongi etorria eta asiloa eskainiz.

Gai honekin lotuta, udal talde sozialistak adierazpen instituzionala aurkeztu du batzarrera.

Beste gaiak

Honetaz gain, 2015 eta 2016 ekitaldian kredituak aldatzeko eman diren dosierren berri emango du Udal Gobernuak, baita 2015 urteko ekitaldiko likidazioaren dosierren berri ere.



Herritarrek ez zuten huts egin, eta, Gure Esku Dagok egindako deiari erantzunez, Loidibarren pilotalekua bete zuten ostiral arratsaldean. Taldeak 300 sinadura baino gehiago lortu ditu jada.

Erabakitzeko eskubidea helburu

Gure Esku Dagok herritar ezberdinek adostutako adierazpena aurkeztu zuen ostiralean

Erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria egin zuten ostiralean Loidibarren frontoian. Irakurri zen adierazpena Gure Esku Dagok 2016ra begira antolatutako ekimenen mugarri da. Bi puntu nagusi onartu dituzte: Euskal Herria bere etorkizuna erabaitzeko eskubidea duen herria dela, eta euskal herritarroi dagokigula erabaki hori hartzea.

TXINTXARRI

Ainara Hernando eta Txema Valles kazetariek irakurri zuten adierazpena, euskaraz eta gazteleraz, hurrenez hurren. Hura idatzi duen lantaldea eta babestuko duten herritarrak bildu ziren Loidibarren frontoian.

300dik gora izan ziren ekitaldira joandako herritarrak.

Talde anitza batzea zen helburua, "herriko eremu, adin eta pentsamolde ezberdinetako" herritarrak gehituz.

Adostutakoa irakurtzeaz gain, argazki bateratua atera zuten amaieran.

2017an kontsulta

Erabakitzeko eskubidearen aldeko herri kontsulta egiteko bidea lantzeko konpromisoa hartu dute.

Eskaera bideratu ahal izateko, diotenez, 16 urtetik gorako lasarteoriatarren %10ak babestu beharko du gutxienez.

Hala, 1.500 sinadura inguru lortzeko erronka jarri diote euren buruari. Ostiralean bertan 300 baino gehiago bildu zituela jakinarazi du taldeak. Ekainaren 12an egingo duten 'Adierazpen egunera' arte jasoko dituzte. Sarean ere ahaliko da adierazpena sinatu.

Adierazpena

Erabakitzeko eskubidearen aldeko jarrera erakustea da irakurritako testuaren muina, "oinarrizko printzipio demokratikoa" delako.

Lasarteoriatar anitzak batu direla nabarmendu du idatziak; "elkarren bidelagun" izatea erabaki dutela azpimarratuz.

Argi utzi dute denek ez dutela babesten proiektu bera. Dena den, onartu dute "Euskal Herria izango den hori euskal herritarrek erabaki" beharko dutela.

Hori kontuan izanda, bi puntu nagusi adostu dituzte: "Euskal Herria bere etorki-

zuna erabakitzeko eskubidea duen herria" dela batetik, eta "euskal herritarroi dagokigula erabaki hori hartzea", bestetik.

Mezua gizarteratzea izango da Gure Esku Dagoren hurrengo urratsa eta erronka. Horretarako, sentsibilitate eta ideologia ezberdinetako gizabanakoak biltzeko ahalegina egingo dute.

Apirilaren 30eko ekitaldia

Ostiralean jakinarazi zuten, hilaren 30ean Torredembarra herri katalaneko 200 bat pertsona etorriko dira herrira. Ekintzaz jositako jaialdia egingo dute egun horretan.



Kuadrillategiko gazteek primeran pasa zuten atzoko egunean.

KUADRILLATEGI

Kuadrillategi egitasmoko kideek 'KTG eguna' ospatu zuten atzo Trintxerpen

KTG eguna ospatu zuten atzoko egunean zehar Pasaia, Lezo eta Lasarte-Oriako Kuadrillategi egitasmoan dabiltzan gazte eta begiraleek. Trintxerpeko Serafin Esnaola plaza izan zen atzoko festaren erdigune.

9:30eko tren hartu zuen gure herritik abiatu zen kuadrillak. Herrera gertokian jaitsi, eta ttipi-ttapa joan ziren Trintxerpera, eguraldi paregabea lagun zutela.

10:30en bueltan elkartu ziren denak Serafin Esnaola plazan. Begirale eta arduradunen azalpenak adi entzun eta gero hasi ziren jolasean gazteak. Hamabi probaz osatuta ginkanari ekin zioten.

Burua, gorputza eta irudimenari eragin behar izan zieten gazteak. Bertso bat sortzea,

sudoku eta ekuazioak egitea, erreleboak, hanka baten gainean oreka mantentzea... orotarikoak izan ziren probak. Garai berrietara egokitutakoren bat ere bai: 'selfieak' atera behar izan zituzten gazteak atzokoak, KTGren logoa eskutan, kalean zebiltzan oinezkoekin. Primeran pasa zuten denek ginkana egin bitartean.

Sukaldari trebeak

Ginkana amaitzean, Serafin Esnaola plazan bazkari legea egin zuten gazte eta begiraleek. Indarrak berri ostean, sukaldari trebeak direla erakutsi zuten neska-mutilek, jaki goxoak prestatu baitzituzten postre lehiaketan.

Antolakuntzak emandako osagaiak baliatuta, hiru ordu laurden zituzten parte hartzai-

leek postreak sortzeko. Ederki aritu ziren: mazedoniak, bizkotxoak, tartak... egin zituzten. Epaimahaiaren aurrean erakutsi zituzten, ondoren. Kideen deliberoa entzun eta irabazlea nor izan zen jakin ostean, taldeek euren eta gainontzekoen postreak dastatu zituzten.

Rezibatukada kaleetan

Perkusioa izan zen protagonista arratsaldean. Asteotan batukada doinuak ikasi dituzte Lasarte-Oriako gazteak, eta atzo eraman zituzten praktikara. Gainontzeko herrietako taldeei eritmoak irakatsi zizkieten aurrean, eta Trintxerpeko kaleak alaitu zituzten gero denek elkarrekin, Oihan Agirretxe herritarra zuzendari zutela. Festari amaiera emateko, hainbat jolas egin zituzten denek elkarrekin.

Asteburu musikala kultur etxean

Amaren Alabak talde zuberotarrak eman zion amaiera atzo IV. Musika Asteari

Musika izan da protagonista nagusia Manuel Lekuona kultur etxean, amaitu berri den asteburuan. IV. Musika Asteaz gozatu dute herritarrek, ostegunetik igandera bitarte: lau emanaldik osatu dute egitaraua. Atzo eguerdikoa izan zen aurtengo edizioako azken emanaldia: 'Plazandere' ikuskizuna oholtzartu zuen Amaren Alabak talde zuberotarrak.

TXINTXARRI

Atzo eguerdian kultur etxera bertaratu ziren ikusleek gogotik gozatu zuten Amaren Alabak talde zuberotarrak taularatutako 'Plazandere' emanaldiarekin. 'A capella' erara kantatutako hamazazpi abestik osatzen dute taldearen bigarren lana.

Emanaldi hori IV. Musika Astearen azkenekoa izan da. Aipatutakoaz gain, beste hiruk osatu dute aurtengo egitaraua.

Sasibil taldeak 'La taberna del puerto' zarzuela oholtzartatu zuen larunbatean. Pablo Sorozabal maisuak sortu zuen obra hori, 1936an.

Ostiral arratsaldean 'X una causa justa' diskako abestiak aurkeztu zituen Serafin Zubiri nafarrak. Hainbat arazo sozial abiapuntutzat hartuta, aukeraturako bakoitzarekin abesti bat egin zuen artistak. Haren zor-zigarren lana da.

Osteguneko 'Eunate XXI' emanaldiak osatu du egitaraua.



Ikusleen artean oso aho zapore ona utzi zuen atzo Amaren Alabak talde zuberotarraren 'Plazandere' emanaldiak.



'La taberna del puerto'-k eta Serafin Zubiriren emanaldiak osatu dute egitaraua.

Udaberriko bertso saiorako bi sarrera zozketatuko ditugu Ttakuneko bazkideen artean!!



Ttakuneko bazkide bazara eta zozketan parte hartu nahi baduzu, eman izena 943 37 14 48 zenbakian, publizitatea@ttakun.eus helbidean edo pasa zaitetz Ttakuneko bulegotik apirilaren 25a bainan lehen!



*Saioa maiatzaren 14an izango da Manuel Lekuona kultur etxean, 22:30etan

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · **APIRILAK 21**

OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

ORONA IDEO · **APIRILAK 30**

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · **APIRILAK 16**

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI · **APIRILAK 23**

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · **APIRILAK 30**

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · **APIRILAK 21**

OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · **APIRILAK 21**

OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · **MAIATZAK 21**

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Martxel Garai
myGADE, 2.maila

#erronkarakoprest

PILOTA.-

Arteaga II.a, nagusitasunez final laurdenetara

Ander Imaz hartu zuen mendean ostiralean Oiartzunen, 5-22

Promozioko eskuz banakako txapelketako final laurdenetara sailkatu da Arteaga II.a, Ander Imaz mendean hartu ostean. Ostiralean jokatu zuten elkarren aurka, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan. Nagusi izan zen pilotari lasarteoriatarra, hasi eta buka: 5-22 irabazi zuen. Hemendik bi astera jokatuko ditu final laurdenak. Ez daki oraindik zein izango den aurkaria eta non jokatuko duen, baina ziurra da gauza bat: erronda horretan egongo da.

TXINTXARRI

Ostiralean jokatzen hasi aurretik galdetu izan balio, Arteaga II.ak ez luke pentsatuko 5-22 irabaziko zionik Ander Imaz oiartzuarri, Promozioko eskuz banakako txapelketako final zortzirenetan. Entrenamendu saio gutxi burututa aritu zen herritarra Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan, eskuineko eskuan min hartu baitzuen jokatutako azken norgehiagokan. Arazo horiek tarteko, "beldur apur batekin" zihoan partidura.

Jokatzen hasi bezain laster uxatu zituen mamuak herritarrek. 3-5ekora arte parekatua izan zen norgehiagoka, baina gero ihes egin zuen Arteaga II.ak. Ezker horma behin eta berriro bilatu zuen, Imaz ez

zedin airez sartu. Estrategiak eman zituen fruituak: 16-1eko partzialarekin, partidua poltsikoratu zuen, eta final laurdenetarako txartela ere bai.

"Oso pozik nago garaipenarekin. Gaur egungo baldintzetan zaila da atzelarientzat [postu horretan jokatzen du Imazek] eskuz banakakoa jokatzea, gure arteko norgehiagokan ikusi den bezala", adierazi du pilotari gazteak.

Albiste guztiak ez dira izan onak, ordea: eskuineko eskua berriro minberatua duela jakinarazi du Arteaga II.ak. Ostiraleko partiduan hartu zuen min. Pare bat aste edukiko ditu orain osatzeko, final laurdenak baino lehen. Zehazteke daude oraindik haren aurkaria eta partidua non jokatuko den, baina ziurra da gauza bat: erronda horretan egongo da Arteaga II.a.



Arteaga II.ak nagusitasunez eskuratu du Promozioko eskuz banakako final laurdenetarako txartela.

Solano garaile lau t'erdian

Intza KEko seniorrek larunbatean ekin zioten Udaberriko lau t'erdiko txapelketari. Egia zor, bakar batek jokatu zuen lehenengo jardunaldia: Aritz Solanok. 22-13 hartu zuen mendean Euskal Giroa taldeko Ibargarai, Michelinen.

Jon Pello Artetxe ere aritzekoa zen bertan, baina ez zuen jokatu azkenean, haren aurkari Julen Loitegik (Urnieta) bezperan deitu baitzuen jokatzerik izango ez zuela esanez.



Aritz Solano (ezkerrean), artxiboko irudi batean.

FUTBOLA.-

Errebantxa hartu du Ostadarrek derbian

Lehenengo itzuliko derbiko Larantzatxoa atera zuen larunbat arratsaldean 1go erregional mailako Ostadar SKTko jokalarik eta entrenatzaileek. 2-0 irabazi zioten Texas Lasarteoriarri, Jon Kortak eta Jon Mikelen golekina. Bide batez, *average* partikularra ere irabazi dute urdin-beltzek; Texasek 4-3 irabazi zuen urtarileko derbian.

Planteamendu erabat desberdinak zelairatu zituzten bi taldeek. Ostadarrek baloia pazientziaz mugitzearen aldeko hautua egin zuen, atzeko lerroetatik jokatzen ateraz; Texasek, berriz, baloia lapurtu bezain pronto kontraeraso azkarrak eragin saiatu zuen.

Ostadarrenak izan ziren lehenengo zatiko aukera garbienak. Gola egin aurretik, beste abagune bat eduki zuen Jon Kortak, baina ez zuen aterearen asmatu. Bigarrean



Lehiatua izan zen Ostadarren eta Texasen arteko larunbateko derbia.

bai, ordea: baloi luze bat ongi kontrolatu ostean, jaurtiketa indartsu batekin 1-0ekoa jarri zuen markagailuan. Texaseko jokalarik eta entrenatzaileek asko protestatu zuten jokaldia, esaten baitzuten baloia zelatik irten zela segundo batzuk lehenago. Atsedenaldira joan aurretik Texasek eduki zuen

aukeraren bat berdinketa sartzeko, baina ez zuen lortu.

Berdinketaren golaren bila jarraitu zuen Texasek bigarren zatian, baina Ostadarrek aurkitu zuen bigarrena sartzeko bidea, Jon Mikelek maisuki jaurtitako falta baten bitartez. Ez zen gehiago mugitu markagailua: 2-0 Ostadarren alde.

JUDO.-

Ander Garrido kadetea Euskadiko txapeldun

LOKEko judokak tatamietara bueltatu dira asteburuan. Ez da nolanahikoa izan itzulera: Ander Garrido kadeteak Euskadiko txapelketa irabazi du, urrezko domina jantziz, eta Espainiakorako sailkapena lortu. Florin Condreanuk brontzea kolporatu zuen, bosgarren izan zen Jon Herrero eta zazpigarren Yeray Mendibe. Azken biek ez zuten zortetik eduki proban.

Infantilak Gipuzkoako txapelketan lehiatu dira, ongi lehiatu ere: Gipuzkoako txapeldun izan da Martin Sebastian judoka gaztea, eta urrezko domina kolporatu du. Haren taldekide Lucas Morales izan da txapeldunordea. Txapelketa bikaina burutu dute biek. Ondorioz, Euskadiko txapelketara sailkatzea lortu dute bi infantilek.



Martin Sebastian infantilak (erdian) Gipuzkoako txapelketa irabazi du.

Agenda

Aste osoan zehar, Manuel Lekuona Kultur etxea



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Astelehena 11, 18:00etan
'Aniztasuna eta bizipoza' narrazioa Kontu Kantoiren eskutik.

Astelehena 11, 18:00etan
'Biztanle atzerritarrekiko estereotipo eta aurreiritziak' hitzaldian Gorka Moreno EHUko Gizarte Lanetako irakaslearen eskutik.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Astearte 12, 18:00etan
'Txanoak buruan eta ibili munduan' narrazioa Kontu Kantoiren eskutik.

Astearte 12, 18:00etan
SOS Arrazakeria taldeko Tarana Karim eta Silvana Lucianok 'Bizilagunak eta zurrumurruak' hitzaldia eskainiko

Aniztasuna lantzen

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak herriko hainbat elkarte eta talderekin batera eta Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatu du aurten Multikultur fest. Kultura ezberdinen elkar ezagutza sustatu nahi dute honen bidez. Nahiz eta ondoan ostegunera arteko egitaraua agertu, ostirala eta asteburuan ere ekintzak izango dira.

dute. Osteen, arabiar produktuen dastaketa izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Asteazkena 13, 17:00etan
Errealaren hitzaldia, 'Kirola eta kultura aniztasuna'.

Asteazkena 13, 18:00etan
Ttakun kultur elkartearen eskutik, Ipuin artean ekintza egingo dute etxeko txiek.

Asteazkena 13, 18:00etan
'Islamean aniztasuna' hitzaldia eskainiko du Valentziako Kultura Islamiko Zentrokokide den Mansur Motak. Hitzaldia amaitu ostean, Marokoko produktu tipikoen dastaketa izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Osteguna 14, 17:00etan
'Ipuiak jo eta musikak kontatu' saioa eskainiko du Badut taldeak.

Osteguna 14, 17:00etan
'Bidegabekeriaren aurkako poesia' Fatima Galia sahararraren eskutik. Osteen, Saharako produktu tipikoen dastaketa.

ARKUPE TABERNA
Osteguna 14, 20:00etan
Javier Pavia kantautore venezuelarraren kontzertua.

SEMBLANTE ANDALUZ
Osteguna 14, 20:30ean
'Guztion Lasarte-Oria sortzen' ekimen multikulturala.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala 15, 22:00etan

Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean 'Spotlight' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 17, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Oker' filma ikusgai; euskaraz proiektatuko dute. Sarrera, 3,80 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 17, 19:30ean
Helduentzako zinema atalean, 'Spotlight' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Pailazoak


MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Larunbata 16, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek haien abentura berria eskainiko dute, 'Amalur'. Sarrera, 7 euro. Jalgi Kafe Antzokian eta Artizar tabernan salgai. Irakurle Txokoko lagunek antolatutako ekintza.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte
Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.



ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara
Ttakun KEko aisia eta gaztea sailek 25

urte hauetan antolatutako hainbat ekintza eta egitasmoko, hala nola, Amaraun Kluba, Gazte Kluba, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira Antonio Mercero aretoan.

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 19, 18:30ean
Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak idatzitako eta Xabier Alegriak eta Gerardo Markuletak euskaratutako bi lan aztertuko dituzte txokoko kideek, Ispiluak eta Hitz Ibiltariak.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean apirilaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazaina da eta odol falta dago!

Eskutitza

Eskertza

Nire jubilazioa dela eta... aldizkari honen bitartez eskertu nahi nuke nire azken egunean ikastolan egin zidaten despedida. Benetan hunkigarria izan zen eta jakin dezazue gogan izango dudala nire bizitza osoan.

Eskergarri da baita kalean maitasun hitzak eta 'zorionak' ematera hurbiltzen zaizkidan pertsona guztiak ere.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet.

Hemeroteka

Duela 1210 ale

TXINTXARRI aldizkariak 1998ko apirilaren 30ean Torre Etxean bizi zen Marcelina Reberi elkarrietzak egin zion. Marcelinak 95 urte beteko zituen ekainean eta bere etxea galtzear zuen, Torre etxea erausteko agindua zegoen eta. Bere bizitzari eta garai bateko Lasarte-Oriari buruz mintzatu zen solasaldian.

Hala nola, Burgoseko Cardañadijo herritik Lasarte-Oriara gerra zibil garaian etorri zela Eladio Bringas senarra eta zazpi seme-alabekin eta elikagai gutxi zegoen garai hartan, aurrera atera zituela aipatu zuen, baita beste hiru seme-alaba izan zituela ere.

Era berean, Lasarte-Oria herri txikia zela eta herritar guztiek elkar eza gutzen zutela azpimarratu zuen. Michelin fabrika martxan jarri ostean, jende asko kanpotik etorri zela eta herria handitzen joan zela ere nabarmentzen du.

Orduan euskara asko entzuten zela adierazten zuen Marcelinak eta zaldi lasterketetako jendea etortzen zenean euskaraz egiten uzten ez ziretela ere aipatzen du.

San Pedro jaiak onak zirela gogora ekarri eta herrian izaten zen giroa oso ona zela nabarmentzen du.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus

M^a Dolores Iturbe
Landaberri ikastolako irakasle ohia

Gorka Marcos Ostadar SKTko jokalaria

'Football'-a ezagutzen

Leicester City-ren bigarren taldearekin aritu da entrenatzen Gorka Marcos, lau egunez

Futbol munduaren epizentroan kokatu da aurten Leicester hiria. Sekulakoa egitear da bertako taldea, Leicester City: Ingalaterrako Premier League ospetsua ukitzen ari da hatz-mamiek. Zazpi puntura dago bigarren sailkatua, jokatzeko hamabost falta direnean. Hiri eta klub horretan egon da Gorka Marcos herritarra: bigarren taldearekin, 21 urtez azpikoarekin entrenatu du, lau egunez. Bestela esanda, 'football' ingelesa ezagutu du. Bertako esperientziak aritu da Gorka gurekin, luze eta zabal.

Iñigo GONZALEZ

Pazko aste ia osoa Leicesterren igaro zuen Gorka Marcosek. Ez zen turismoa egitera joan, ordea: Leicester Cityren bigarren taldearekin aritu zen entrenatzen, lau egunez; martxoaren 28tik apirilaren 1era arte.

"Azkar batean" eman zuen baiezkua Gorkak, proba egitea proposatu ziotenean. Gaur egun Ostadarren aritzen denez paper batzuk eskatu behar izan zituen klubean. Tramite hori eginda, Leicesterreko ordezkariarekin egindako bileran jakin zituen nondik-norakoak: lau egunez entrenatuko zuen herritarrak Leicester Cityren bigarren taldearekin, 21 urtez azpikoarekin.

Martxoaren 27an, igandez, iritsi zen Gorka Leicesterera. Ez zen bakarrik joan: gurasoak ere bidaiatu zuten. Printzipioz, denek hotel berean hartuko zuten ostatu hurrengo asteko ostiralera arte, baina iritsi eta berehala lehenengo 'sorpresa-txoa' eraman zuen jokalaria gazteak. Leicester Cityk badu prozedura bat hirikoak ez diren jokalariei ostatu emateko: bikoteak kontratatzen dituzte, jokalaria euren etxeetan hartzeko. Gauzak horrela, aste-lehenetik ostegunera arte senar-emazte batzuen etxean egon zen Gorka. Ostiralean, azken egunean, bueltatu zen hotelera.

"Oso gustura egon nintzen han, primeran zaindu gintuzten. jaten ematen zigiten, logela bat ere bai... Ni bertan egon nintzen egunetan, zortzi-bederatzi bat jokalaria pasa ziren bertatik, egunero etortzen zen berriren bat!", dio jokalaria gazteak.

Etxean igarotzen zituen orduak atseden hartzeko balia-tzen

zituena, baina ez zereginik ez zeukalako edo aspertuta zegoelako. Behar zituena deskantsorako tarte horiek. Izan ere, kontaktatzen duenez, "oso erritmo bizian" entrenatzen zuten Leicester Cityk.

Goizetan gimnasio-lana egiten zuten. Hamarretan hasten ziren; ordubeteko saioak burutzen zituzten. Futboleko 'arratsaldeko saioetan' jokatzen zuten, bi orduz. Ez da kazetariaren kapritxoia komatxoak erabiltzea. Gorkak berak hobeto azaltzen du zergatia: "Ordubietan irteten ginen zelaira, entrenamendua hasteko. Arratsaldeko saioak deitzen diete horiei, eta harritu egiten nintzen ni, Ostadarren 20:30ean hasten baikara entrenatzen astearteetan!".

Beroketari "sekulako garrantzia" ematen dio klub ingelesak. "25 bat minutuz aritzen ginen denetarik ariketak egiten", aipatzen du herritarrak. Ez da harritzekoa hain ongi berotu behar izatea, "intentsitate oso altuko" lan-saioak egiten dituelako 21 urtez azpiko Leicester Cityk.

"Beste jokalaria pare batek burutu zituzten proba-saioak. Crystal Palacen aritzen da bat, eta Aston Villan bestea. Esan zidaten Leicesterren intentsitatea ezin zela alderatu euren klubenekin. Eta hiruetako lehen taldeak kategoria berean [Premier League dela-koan, lehen mailan] ari dira! Aterakoak kontuak hortik", dio Gorkak. "Baloia ez zegoen segundo bakar batez ere geldirik; inoiz ez".

Golaren bila beti: zenbat eta azkarrago, hobe

Leicester Cityren joko-estiloaz galdetuta, "pazientzia askorik gabekoa" eta "zuzen-

na" dela nabarmentzen du herritarrak. "Aurkariaren atea dute buruan beti, golaren bila joaten dira etengabe, baloi luzeen bitartez atzelarien bizkarra bilatuz. Gehiago mugitzen dugu baloia hemen, jokaldiak landuagoak dira", aipatzen du.

Kalitate tekniko handiko jokalaria da Gorka: baloiarekin zenbat eta kontaktu gehiago eduki, hobe. Lehenengo egunean "komerik" izan zituen baloia ukitzeko: "Aurrelari eta defentsen arteko lehen aldaratzeen bidez iristen zen baloia nire hanketara. Hurrengo egunetan, taldekideek jada ezagutzen ninduten, bazekiten baloia edukitzekoa naizela, eta gehiago bilatzen ninduten".

Arestian esan bezala, "leher eginda" iristen zen herritarra etxera, lan-saioen ostean. Fisikoki "oso ongi prestatuta" egoitea "funtsezkoa" dela uste du. "Ni ez nengoen haien maila berean, eta azkarrago nekatzen nintzen, aurreneko saioetan bereziki", aitortzen du.

Burutu zituen artean, asteazkeneko saioaz hitz egiten du: partidu bat jokatu zuten taldeko jokalaria guztiek, euren artean. Bederatzi, zortziren aurka. 30 minutuko bi zati. Aurrenekoa bat gehiagorekin jokatu zuenak, bat gutxiagorekin aritu zen bigarrenean, eta alderantziz. Gorkaren taldeak galdu zuen. Zain zuten 'saria': "Galtzaileak gu izan ginelako, sprint dezente egin behar izan genituen; erabat akituta joan nintzen aldagelara, lur jota".

Ingelesarekin ere, komerik

Gauza askotara egokitu behar izan zuen Gorkak Leicesterren. Horien artean, hizkuntzara. Ingelesean moldatzen da herritarra, baina aitortzen du arazoak izan zituela taldekide eta entrenatzaileen hizketa ulertzeko. "Oso ingeles itxian hitz egiten dute, azkar-azkar eta apenas ahoskatu gabe".

"Banekien nire maila apala zela, baina hara joan arte ez nintzen erabat ohartu horretaz", aipatzen du jokalaria gazteak. Haiek ere ez zekiten gaztelaniaz, eta, horrelakoetan egin ohi den lez, zeinu bidez komunikatzen ziren askotan. Izaera aldetik "itxiak" direla zehazten du herritarrak, baina hitz egiten hasiz gero, "atseginak" direla.

Umiltasuna ezaugarri

21 urtez azpiko Leicester City kategoria horretako lehen mailan ari da lehian. Hemere-



Gorka Marcos, Leicester Cityren kirol instalazioetara iritsi berritan. G. MARCOS

tzi partidu jokatu, jaitsiera postuetan dago, hemezortzi puntu baino ez baitu bildu. Hala ere, "lasai" daude, Gorkak antzeman duenez: "Uste dute aterako direla zulotik; ez daude batera urduri".

Guztiz kontrakoa da lehen taldearen egoera. Inork espero ez zuena ari da gertatzen aurten Premier League txapelketan: Leicester City doa lider, bost jardunaldi falta direnean. Zazpi puntu ateratzen dizkio Tottenham Hotspur-i, bigarren sailkatuari, eta hamahiru Arsenali -besteek baino partidu bat gutxiago dute jokatu Arsenalen Wengerrenek-.

'Azeriak' -ezizen horrekin da ezaguna Leicester- sekulakoa egitear dira, baina klubaren egunerokotasunean ez da igartzen, Gorkak esaten duenez: "Haiekin entrenatu dudana egunetan, ez dut behin ere entzun taldekide, entrenatzaile edo zuzendaririk lehenengo joateari buruz hizketan. Oso klub umila da, ez dira harrotzen edo puzten liga irabaztearen dute, besterik gabe".

Gorkak aipatzen duen beste gauzetako bat da harrobiko taldeek eta lehenengoak duten gertutasuna. "Instalazioak sekulakoa dira, bederatzi bat zelai edukiko ditu, baina 18 eta 21 urtez azpiko taldeek eta lehenengokoek elkarren ondoan entrenatzen dute. Ez da egoten arazorik, nagusiek jokalariren bat behar badute, une batetik bestera haiengana joateko. Eta, amaitzean, guztiek bazkaltzen dute elkarrekin, kirol instala-

zioetan bertan. Hori oso-oso ongi daukate antolatuta".

Esperientzia ahaztezina

"Ederra" izan da Leicesterreko egonaldia, jokalaria gazteak dioenez. "Ezagutu ahal izan dut futbolaren beste alor bat: profesionala. Haietako bat bezela bizi izan naiz egun horietan: entrenamenduak, elikadura, atseden orduak... Ohartu naiz gogorra dela bizimodua".

Entrenatzeaz gain, Leicester hiria ere ezagutu zuen Gorkak, ostiralean, etxera itzuli aurretik. Hiria ez zen izan bertako egonaldiko gauza gustukoena izan herritarrarentzat: "Nahiko itsusia iruditu zitzaidan, berdinak dira kale ia guztiak; ikusi ahal izan nuenetik, errugbi eta futbol estadioak gustatu zitzaizkidan".

Egonaldia amaitzean, Leicester Cityko ordezkariak herritarrari esan zioten lau egun ez zirela aski bere maila baloratzeke, eta bueltatzea proposatu zioten. "Nik erantzun nien ikasketak lehenesten nituela, eta, bueltatzekotan, unibertsitateko kurtsoak amaitu behar zuela. Ekaina partean itzultzea eskaini zidaten, baina oraindik ez dakit zer egingo dugun, familiarekin-eta hitz egin behar dut, baloratu... Ikusiko dugu".

Unibertsitateko kurtsoa ez da amaitu oraindik, eta futbol denboraldia ere ez. Ohorezko Erregional mailan zarpigarren postuan dago Ostadar, sei jardunaldiren faltan. "Gure helburua da denboraldia ahalik eta ongien amaitzea; ahal izanez gero, lehenengo bost sailkatuen artean".